

# GOIZPAŔKI EDO EBANGELIJUA

## GAŔIĹA - 22'GAŔENEKUA



*Ogasun-saŕtu-urtenak atzaldu eiztazak.*

Aldi atan: Josu'k bere ikaslarijai ipuin au esan eutsen: Gixon iñorbat zan, aberatsa, ogasuntzaña (ogasuna zaintzen ebana) eukana; ta au jabiari salatu eutsaen beronen ogasunak ondatu ebazalako.

Eta dei-egin eta esan eutson: ¿Zer dok, ba, nik eutzaz entzuten yuadan au? Ogasun-saŕtu-urtenak atzaldu eistazak; gauŕtik, ba, nire ogasunak zaindu ezingo daikezak-eta.

Eta ogasuntzañak burubaz esan eban: ¿Zer egingo ete-dot, ba, jaubiak ogasun-zaintza kentzen daust-eta? Atxuŕka ezin dagiket, eskekaz lotsa naz. Bai-dakit zer egingo dodan, ogasunzaintza kenduko daustenian, euren etxietan aŕtu nagijentzat.

Eta jaubiaren zordunak ban-banan deŕurik, lenenguari esan eutson: ¿Zeinbat ik jaubiari zoŕ dautsokan? Eta onek esan eban: orijo edo gaimel-eun neuŕi. Eta oni esan euson: eure papera (ingija) aŕtu egik, jezaŕi adi lasteŕtxe ta beŕogetamaŕ idatzi edo eskribidu egikek.

Gero bestiari esan eutson: ¿Ik, ba, zeinbat zoŕ dautsok? Eta onek esan eban: Gari-eun meta. Esan eutson: eure ingijak aŕtu ta larogei idatzi egikek.

Eta jaubiak ogasuntzain gaizkiña goraldu eban, zuŕ-egin ebalako; gixadi onetako señak argiseñak baño zuŕaguak dira euren señaldijan. Eta nik dirautzubet zubei: gaiztakeri-ogasunetaz aizkidiak egixubez zuben burubarentzat, erijotzaldian etxe betikoŕetan aŕtu zadixentzat.

### *Legoya, Otsua ta azeriya.*

Legoya zaŕtu zan; aitz-zuluan kuzkuŕtuta gaxo zegon.

Abere guziyak, azeriya ixan-ezik, beren buru zanari auŕkeztu zitzaizkiyon ikeŕtzeko (bisitatzeko). Otsuak azeriya salatu zuban legoyaren auŕian, guziyen buru zana ikeŕtzeko ere etzala etoŕi esanaz. Une artantxe azerija ageŕtu zan eta otsuaren azkenengo itzak entzun ziĺuban. Legoyak oŕu-egin zuban beronen kaltez.

Azeriyak, bere buruba aldeztuteko garaya eskatuta, esan zuban:—«¿Ta emen daudenetatik nork lagundu zaŕu nik aña, edonun aruntz-onuntz ibiliyaz, zuretzako sendagai-biĺa sendalariyengana juanik, azkenik sendagai au ikasi ba-det?»

Au entzunik, legoyak agindu ziyon sendagai ori zein zan azkaŕ esateko ta azeriyak esan zuban:—«Otsua bixi-bixirik naŕutu-ondoren bere naŕuba epel dagon aŕtian zuk jaztia».

Otsua iĺotzik erori-ondoren, onela itz-egin zuban azeriyak: — "Ezta ongi jabia etsaikerira eratzatia: ongi-naira eratzan biaŕ-da„.

Ipuyak adirazten du lagun uŕkuaren kaltez leyatzen danak beretzat saria jaŕtzen dula.

# Euzkeldun neskatiĺai.

### Neskatiĺak guraso-etxian

Eguneko lanaren ostian aŕa datoŕanian bekokija iĺun dakaŕala, *neskatil onak berialaxe, bere apa ta itz gozuakaz* poza erakaŕten dautso sendijaren nagusijari; berak eta bere amak adi-adi **entzuten** dabez aŕak bere lanian euki dauzan atsekabiak, eta bijak **eŕukiŕuta**, itz onakaz adoretuten dabe baŕiro.

Ama gexorik ba-dago, alabeak ordeztuten dau etxeko zeregin gustijetan; eta onek beteta, amaren ondora dua josten ala atsegin yakon idaztiren bat irakuŕten.

Neguko gau luzietan, izketia otziŕuten danian, berak berotuten dau *ipuñen bat edestutiaz ala bere iŕaunakaz batari ta* bestiari itz-eragiñaz; ala bere amak maŕiago dauzan abesti gozuak eta aŕa ta nebiai atsegin yakezan abesti abeŕkoyak abestutiaz.

Bixitzaren ordu laŕijetan bera da bakia eratoŕten dauna. Ganera, neskatilak eurez diraĺako bijotz-berak, beti dago geŕtu iñoren aldez egiŕeko.

Au dala-ta, bein jazorikua edestuko dautzubet emen:

Juan dan udean baseŕijan *nenguan aizkide-etxe baten*. Basozaindarija etxagunagana etoŕi zan eta esan eutson basuan eiztari bat ikusi ebala baimen-barik exan edo *kazan* ebilana, ta eragotzi eutsolako iraindu egin eutsola. Etxaguna asaŕatu zan eta eiztarija epaikarijagana eruateko agindu eban. Gustijok ixildu ziran; baña gabian, apal-orduban, Laure, etxeko alaba nagusijak, eiztarijaren seme-alaba ta emaztiatzaz jardun eban; atzaldu ebazan emaztiaren ekandun edo birtutiak: garbija, lan-zalia ta kistaŕ zindua zala, ta, ganera, seme-alabiak ondo menduten ebazala. Laure'ren aŕak entzun ezpa-leu lez egin eban, baña ordu batzuk **igarota**, baso-zaindarijari dei-egin eta eztarija ez epaikatuteko **agindu** eutson; bakaŕik baŕiro ez egiŕeko esan eta azke izteko.

Beste bein baten, iñoren aberiak etxagunaren espaŕuban saŕtu ziran bedaŕa jaten; eta beste baten gixon bat bere basuan eguŕa ebagiŕen baimen-barik aŕtu eben. Baña beti Laure'k eurok aldeztuteko zijua auŕkitzen eban, eta aŕaren asaŕia bigundutén eban.

Augaŕik, ezautzen eben gustijok *gixagaxuen gotzona* ereisten eutsuen.—ETXAKIN.

# OLEŔKARIJAI

Oleŕki edo *bertso* geyegi aŕtzen doguz. Aspaldijon laŕegi argiŕaltzen doguzan aŕen ezin gustijak saŕtu. ¿Zer aŕano ete-da? ¿Idazlari gustijak oleŕkari egin ete-dira? ¿Eta lugintza, itxaskuntza, ipuin, atsegin-onegin eta ostantzekuak nozko?

¡A, idazlari maŕe oŕek: oleŕkijak poliŕak dira... poliŕo egiŕen diranian; baña geuk eztogu izpaŕingi au oleŕkijetarako bakaŕik soŕtu.

Oleŕkiz beti idazten dabenak, ¿ezin ete-dabe beste erara idatzi, ala? Bai, beintzat, eta polito gero.

Tira ba, noxian bein oleŕkijak idatzi egixubez; baña ez beste gayak alde batera laga, oleŕkijak baño onuratsubaguak dagoz-ta.

Askok uste-dabe oleŕkiz idaztia eŕazagua dala euzkeraz. Ixan leŕeke, baña... zelan dan. Euzkereak be, beste edozein elek lez, bere lagijak daukoz oleŕkiz idazteko. Eta lagi oŕek eztabez beti oleŕkarijak betetan.

Uŕengo-zenbakijan onetariko lagi batzuk, nagusijenak, jaŕiko doguz emen.